



ATAUNGO UDALA

Ataun beka: “**JOXEMARTIN APALATEGI BEGIRISTAIN**”

Deialdi honen helburua Joxemartin Apalategi Begiristainen ikerlana ezagutaraztea, herriratzea eta ikerlariari bide berriak egiten laguntzea da.

Bere lana oparoa izan arren, herrian ez da hain ezaguna izan eta horregatik udaletik eta familiatik bere lana berreskuratzea eta sozializatzea helburua duen hitzarmena sinatu zuten.

Familiaren nahia da Ataungo Udalarekin sinatutako hitzarmena betetzea eta horretarako aldioro bere ikerlana birgogoratuko duen ekimen bat egitea.

ATAUN BEKA -BEKA ARAUTZEN DUTEN DEIALDIAREN OINARRIAK.

1.- XEDEA

Ikerketa esparrua, hau izango da: Historian zehar eta gaurdaino, Ataunen **EMAKUMEAK** daukan presentzia, ezaugarriak eta garrantzia ardatz izango duen ikerketa bideratzea. Ikerketaren helburua emakumearen inguruko ezagutza eta errekonozimendua egitea.

Proiektua edozein diziplinatan egin daiteke. Giza eta gizarte zientziak: AHOZKOTASUNA, ANTROPOLOGIA (etnografia, etnologia, paleontologia...) , ARTEAK (dantza, eskultura, kantua-musika, pintura...), FINANTZA EKONOMIKOA, KOMUNIKAZIOA (kazetaritza, irradi-telebista...), HEZKUNTZA, HISTORIA, HIZKUNTZA ETA LITERATURA, POLITIKA ETA ADMINISTRAZIOA, PSIKOLOGIA, SOZIOLOGIA, ZUZENBIDEA... eta multidiziplinarra ere izan daiteke.

Azterlana izan daiteke historiari emakume batek bakarka egin dion ekarpena edo emakume talde batek egindakoa.

2.- ONURADUNAK

Beka norbanakoek nahiz horretarako osatutako lantaldeek jaso ahal dute. Bigarren kasu honetan, nortasun juridikorik gabeko pertsona fisikoen taldeak, ikerlanaren zuzendari arduradun bat izendatu beharko du taldeak.



ATAUNGO UDALA

3.- ESKAERA

Parte hartzeko, eskabide orria aurkeztu behar da behar bezala beteta. Gainera, parte hartu nahi dutenek lan-proiektu bat, memoria bat, aurkeztu beharko dute. Gehienez ere, 15 orrikoa.

Memoriak jaso behar ditu proiektuaren izenburua eta proiektuaren deskripzioa, barne direlarik helburuak, proposatzen den ikerketaren interesa, metodologia eta lan-plana.

4.- ENTREGATZEKO EPEA

Proiektua aurkeztu behar da *2019ko maiatzaren 1a baino lehen*, Ataungo Udal Erregistroan (Helbarrena auzoa, 44 - 20.211 Ataun) izenburu hau duela aurkeztu behar da: “Joxemartin Apalategi Begiristain” ikerketa beka.

Ikerlanak gutxienez 100 orrialde izan beharko ditu. Ordenagailuz, Din A-4 CD formatuan aurkeztu beharko da, 12ko hizkiarekin eta tarte normalarekin idatzirik.

Epaimahaiaren erabakia jakinaraziko da aurkezpen epea amaitu eta hilabete bat geroago.

5.- AURKEZTU BEHARREKO AGIRIAK

- Lanaren aurreproiektua: 5-10 orrialde izan behar ditu, eta titulua, ikerlanaren planteamendua, helburuak, lan metodologia, kronograma, baliabideak eta bibliografia jaso behar ditu. Proiektuaren bi kopia paperean aurkeztu behar dira, eta beste bat gehiago euskarri digitalean.

- Eta beste gutun-azal batean:

- Izenburua, eskatzailearen harremanetan izateko datuak, nortasun agiriaren fotokopia eta eskatzailearen curriculum labur bat.

- Eskatzailearen erantzukizunpeko adierazpen bat, beka jasotzeko ez duela azaroaren 17ko 38/2003 Legearen 13.2 artikulua jarritako batere debekurik dioena.



ATAUNGO UDALA

- Eskatzailearen erantzukizunpeko adierazpen bat, zerga betebeharrak (Ogasunarekikoak eta Udalarekikoak) eta Gizarte Segurantzarekikoak beteta dituela dioena.
- Eskatzailearen erantzukizunpeko adierazpen bat, zera dioena: helburu eta asmo honetarako bererako ez diola ezeren diru laguntza, laguntza, beka, sarrera edo baliabiderik eskatu inolako administrazio publiko edo erakunde publiko nahiz pribaturi.
- Baimen bat, eskatzaileak beka hau kudeatzen duen organoari emana, beka eskatu duen pertsonaren identitatea jakiteko eta hark beka hau eskuratzeko baldintzak betetzen dituela egiaztatzeko bidea izan dezan organo horrek dagokion administrazioan, dela baliabide elektronikoez, dela eskueran diren beste baliabide batzuez, administrazio publikoak dituen beste egiaztatze, kontrol eta ikuskatze eskumen batzuk eragotzi gabe horregatik.

6.- EGITASMOAREN FINANTZAKETA

Bekaren kopuru ekonomikoa 10.000eurokoa da eta iraupena, 18 hilabete.

Kopuru hori hiru zatitan ordainduko da: aurreneko 3.000 euroak proiektua hautatukoan ordainduko da; beste 3.000 euroak, hiru hilabete igaro ondoren, txosten bat entregatu eta gero; eta azken 4.000 euroak, azken txostena entregatzen denean.

Proiektua garatu behar da, hura hautatu eta segidako hamabi hilabeteetan.

Bigarren ordainketa jasotzeko, honako hau zehaztu behar da: ordura arte egin den lana; ea hasierako proiektuari funtsezko aldaketarik egin zaion; eta hurrengo hilabeteetarako lan-plana.

7. HIZKUNTZA

Proiektuaren eta ikerketaren laburpena euskaraz aurkeztu beharko da.

8. EPAIMAHAIA

Proiektua hautatuko duen epaimahaia honela eratuko da:

- Udaleko bi ordezkari (bi alderdietako ordezkari bana)



ATAUNGO UDALA

- Familiako bi ordezkari
- Herriko 2 aditu

9. ESLEIPEN PROZEDURA

Epaimahaiak proiektuak ebaluatu eta hautatuko ditu.

Ondorengo irizpideak hartuko dira kontuan:

- Eskatzailearen curriculum.
- Ikerketa proiektuaren interesa eta zuzentasuna, orijinaltasuna eta bideragarritasuna
- Hizkera ez sexista.

Deialdi honetan parte hartzeak oinarri hauetan jasotakoa eta erabakia onartzen direla esan nahi du. Proiektuak ebaluatuko dituen epaimahaiak, ez ditu lan bakoitzaren egile edo egileak nortzuk diren ezagutuko, beraz aukeraketa anonimotasuna gordez aurrera eramango da.

Aurkeztutako proiektuek ez badute beharrezko onespena jasotzen beka deialdia eman gabe geratuko da.

Beka jaso gabe geratzen diren proiektuak, egileak berak edo honek idatziz baimenduriko pertsona batek jaso ahal izango du Ataungo udaletxeko erregistro bulegotik erabakia argitaratu eta hamar eguneko epean.

Oinarrietan jaso gabeko egoerak Epaimahaiak ebatziko ditu.

10.- ONURADUNAREN BETEBEHARRAK

Oinarri hauetan jasotatik eratorritako erabaki guztiak betetzea.

- Hamar eguneko epea idatziz jakinarazi behar da beka onartzen dela. Beka itzultzeko konpromisoa adieraziko da, aurreikusitako lan programa bete ezin bada.
- Bekaren helburuei lotutako lan programa garatzea eta udalarekin jarraipen saioak burutzea.



ATAUNGO UDALA

- Lanaren jabea egilea bera izango da. Ataungo Udalak berarentzat gordetzen du, hala ere, ikerketaren argitalpen oso edota zatikakoa egiteko eskubidea. Kasu honetan, bekadunak uko egiten dio egile eskubideak jasotzeari. Ataungo Udalak lanak argitaratzea erabakiko balu, horren berri eman beharko die egileei eta bost urteko epean argitaratu beharko du.
- Lehen argitalpen horren ustiapen eskubideak Ataungo Udalarenak izango dira. Epe hau igarota, egileak bere lanak argitaratzeko eskubidea izango luke, beti ere Ataungo Udalak proiektua bekatu duela adierazi beharko du lanaren zabalkuntza, publizitate eta argitalpena egiterakoan eta Udaleko logoa agertu beharko da. Udalak ikerketa argitaratzeari uko egingo balio lehenago argitara dezakete egileek.
- Lana argitaratu gabea izan beharko du.
- Onuradunek egindako lana idatzizko dokumentu batean aurkezteko beharra dute eta idatzizko dokumentuaz gain ikus entzuteko materialak aurkezteko aukera izango dute.

Ataunen, 2019ko otsailaren 17an.